

EIHERA SEMEA

An urrun, duela ainitz urte, senar-emazteak bizi ziran eihera xahar batean; semea bakarra zeukaten, Kurtin zeritzana. Naiz guraso naiz seme, zori ontsu ziran osoki, egoitza gaixo artan lan egiñez, polliki baitzeuden guziendako ogia ta zer-jana irabaziz. Bai, aitamak batez ere, poz-esnetan bizi ziran, beuren seme gaztea, eihera-lanari gogotik lotu ta nola saia oi zan ikusiz.

Negu buluza eldu zanean, ordea, eihera xabarraren besoak bat-batean gelditu ziran, eta ango egoiliarrak izango zuten aurki nagabe ta bearra. Aurretik ez omen zuten sekula olako urritasunik ezagutu, ez baitzan nehun ere ogi, garagar ez olorik ikusten. Inork ere, jadanik, ez zieten ereman oi bihi zaku bat bera. Zoritxar zigorra, egiaz, gainez gain zebilkioen.

Goiz batez, supazter-xokoan zeuden guziak eserita; Kurtin'ek, etxean zeukaten jan-orniak aitu-urten zirala-ta, beren aita-mei esan zien:

—Mingarri zait, aita; baina, nai ta ez, negurako dauzkagun jan-apurrak bukatu orduko, lan billa atera bearrean naiz.

Aitak ez aditzen Kurtin'i? Ez zion ezer erran, beindik bein; adi-adi zegon negarra zerion emazteari.

—Ez zazu negarrik egin, ama —gazteak goxo amari—; laister itzuliko naiz, eta orduan...

—Oa, seme, ta Jainkoak argi zaitzala.

Eihera semeak, agitz erabakitsu, goiz artan bertan utzi zuen gurasoen etxea; jantzi batzuk eta zorro tiki bat, janariz betea, bizkarrean zitularik, ba-zoan bidez-bide, auzoko irirat, lanaren billa.

Bidaldi latz-luzea arduraz egiñik, arkaitz baten ondoan eseri zan gure mutikoa, atsaren gainean jartearren. Itsumustuan, aize zakar otza xistuka asi zan oihan zuhaitz artean, adarrak asko lurrera eror-aziz; Kurtin jaiki eta sasi artetik zear, an urbil zegen leizeño batera zuzendu zan: bazter batean etzan eta lokartu zan bertarik. Andik laister, karraxi oies batzuk eten zuten gaztearen lo-aria, ta, izu-lauorri, leize-bazter baten gorde bear izan zun bere burua.

Leizearen ondaretik gizaseme gotor, itsusi, bilo luze ta atzapar kakoduna ilki zan; eta aren ondotik, beste gizaseme bat eta irur emazteki; emaztekiak, berriz, soineko beltzez jantziak zijoazten, eskuan isatsa.